

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektu hau aurrera eraman ahal izateko eta eraginkorra izateko, ezinbestekoa izango da argi zehaztea zeintzuk izango diren egingo ditugun ekintzak edo jarduerak, hau da, zer da egingo dugun gauzarik garrantzitsuen proiektua funtzionatzeko.



Ikusmen urritasuna duen pertsona batek erosketak egitera joaterako orduan, nahi dituen produktuak aurkitzeko zailtasunak izan ditzake, horregatik gure lana alde batetik arazo horiei irtenbide bat aurkitzea izango da. Beste alde batetik, ekoizpen jarduerak ere egingo ditugu, eta hauen barne, hainbat jarduera desberdin bereizten dira, hala nola:

- Beharrezkoak izango diren **baliabide materialak eta giza baliabideak eskuratzea** (kontrataturako profesionalak, gure aplikazioa sortu ahal izateko beharko ditugun baliabide guztiak, teknologia, izango ditugun kostuak...).
- Sortutako **aplikazioa saltzea**, adibidez kartelen bidez publizitatea eginez, sare sozialen bidez edo supermekatuko megafoniatik iragarkiak esanez
- **Informazio gehiago eskuratzeko** eta aplikazioaren inguruan sor daitezkeen **zalantzak argitzeko** blog bat **sortzea**. Izan ere, blogaren bitartez aplikazioan egiten ditugun berrikuntzak ikusi ahalko dituzte, baita gurekin harremanetan jarri ere.

- Gure **aplikazioa martxan jartzeko** Gasteizen dauden **supermerkatuekin harremanetan jartzea**. Hasiera batean, Eroski, Carrefour, Lidl eta Mercadonarekin lan egingo dugu eta euren datu basea lortuko dugu produktuen zerrenda izateko aplikazioan txertatzeko eta ondo funtzionatuz gero eta eraginkorra izanda, beste supermerkatu batzuetara zabaltzea baloratu beharko genuke.
- Lan egingo dugun supermerkatuekin **harremana mantentzea**. Izan ere, aldaketarik izatekotan haien produktuetan edo baten bat berria izatekotan guri informazio hori iritsiko litzaiguke guk superapp-ean gehitzeko.
- Azkenik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu **aplikazioa probatzea** egon daitezkeen zailtasunak edo arazoak aurreikusteko eta behar izatekotan egin beharreko aldaketak garaiz egiteko gure bezeroek arazo gabe eta ahalik eta zailtasun gutxienekin erabili ahal izateko.